

Nondik gatoz? Nola sortu ginen?

Azpeitia ezagutzen



1.º
unitate
didaktikoa

2.º
unitate
didaktikoa

AZPEITIA EZAGUTZEN

Nondik gatoz?


Nola sortu ginen?

- Argitaratzailea: Azpeitiko Udala (Hezkuntza Saila)
- Egilea eta koordinazio lanak: Olatz Aranguren Juaristi
- Ilustrazioak: Iban Izagirre Uranga
- Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
- Aholkularitza: HIK HASI Euskal Heziketarako egitasmoa
- Argazkiak:
 - EREGI, Euskara eta Komunikazioa (Leire Larrañaga)
 - 3. 32. eta 40. orrialdeetako argazki zaharrak *Azpeitiko Efemerideak, Herria Historian Zehar*. Uztarria Kultur Koordinadora (Egilea: Imanol Elias)
 - 7. orrialdea, fosilak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Munibe Arkeologia Taldea
 - 15. orrialdea, trikuharrien argazkiak, Aranzadi Zientzia Elkartea eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - 16. eta 17. orrialdeak, indusketako argazkia eta errota, Aranzadi Zientzia Elkartea
 - 12. orrialdea, zaldiak, Alvaro Arrizabalaga-Gipuzkoako Foru Aldundia
 - 11. orrialdea, Ekaingo zaldia, Iraurgi Lantzen.
 - 13-. orrialdea, Ekaingo panela, Ute Arazi-Aranzadi/Gipuzkoako Foru Aldundia
 - 17. orrialdea, burdinezko labana, fibula, pisua eta zeramika Gipuzkoako Foru Aldundia
 - 18. orrialdea, sagardo bodegoia, Mikel Zengotita - Ardoaren bodegoia - ©Karandaev - Fotolia.com
 - 40. orrialdea, Azpeitia XX. mendean argazki zaharra, Antton Martinez
 - 10. eta 13. orrialdeko animalien argazkiak ©Alien Cat, ©Jaun Pablo Fuentes, ©DenisNata, ©Christian Musat, ©Dozornay, ©Michael Rosskothén, ©Olga Sokalo, ©Elenarts, © Anatolii - Fotolia.com - Ardiak-EREGI, Euskara eta Komunikazioa (Iñaki Martinez).
- L.G.: SS-1194-2013
- Inprimaketa: ORVY

NOR DA PATXI? NOR INAXI?

BESTE ERA BATETARA DEITUKO AL ZENIEKE?

NOLA?



ZEIN EGITEN ZAIZU HURBILEKOENA? JARRI ZURE ARGAZKIA EDO MARRAZKIA BERE ONDOAN. AUKERATU DUZUN ARGAZKIAREN AZPIAN IDATZI ZURE IZENA. BESTEAN ZURE LAGUN BATENA JAR DEZAKEZU.

NA

A green pencil with a pink eraser and a pink band is shown drawing a pink oval. The pencil is positioned diagonally, with the eraser at the top right and the lead tip at the bottom left, where it is in the process of completing the oval. A soft shadow is cast to the right of the pencil.[illegible][illegible]

NOLAKOA DA AZPEITIA?

- | | |
|--|---|
| ☐ HONDARTZA DU | ☐ HARRESIAK DITU |
| ☐ IBAIAN AHATEAK BIZI DIRA | ☐ TREN GELTOKIA DU |
| ☐ BIZTANLE ASKO DITU | ☐ MENDIAK DITU INGURUAN |
| ☐ ZOOLOGIKOA DU | ☐ BIDEGORRIA DU |

MARRAZTU GURE HERRIA



HASIERAN



HASIERAN, DUELA MILIOIKA URTE, ITSASOAK ESTALTZEN ZUEN EUSKAL HERRIA.

ITSASOAREN AZPIAN GERTATZEN ZIREN LUR MUGIMENDUEN ONDORIOZ,
PIXKANAKA LURRA ITSASOAREN AZPITIK IRTETZEN HASI ZEN.

IZARRAITZ ETA ERNIO DUELA 120 MILIOI URTE INGURU ATERA ZIREN ITSASO AZPITIK.

...DENA ITSASOAREN AZPIAN ZEGOEN

FOSILAK GARAI
HARTAKO
ANIMALIEN ETA
LANDAREEN
AZTARNAK DIRA



ITSASOAN ZEN. BIZITZA SORTU



MENDIAN AURKITUKO FOSILAK DITUZU.



EZ ZIREN DINOSAUROAK BIZI. HEMEN

LEHENDABIZIKO GIZAKIAK



KALKULATU ETA JARRI LETRA BAKOITZA BERE LEKUAN.

5-3 R

3+7 N

8-4 K

9-2 T

3+6 E

9-8 I

7-2 A

1+2 I

6+2 Z

10-4 I

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

ZEGOEN INGURUKO LEHEN BIZTANLEEN BIZITOKIA

IRIKAITZEN

TRESNA OSO
ZAHARRAK AURKITU
DITUZTE.



BAI

EZ

ENTZUN ETA ADIERAZI **BAI** EDO **EZ**.

- IRIKAITZ ZESTOAKO BAINUETXEAREN ONDOAN DAGO ☐ ☐
- KOBAZULOAN BIZI ZIREN BERTAN ☐ ☐
- IBAIAN JASOTAKO HARRIEKIN TRESNAK EGITEN ZITUZTEN ☐ ☐
- EHIZA ETA ARRANTZA EGINEZ LORTZEN ZUTEN JATEKOA ☐ ☐
- URTE OSOAN BERTAN BIZI ZIREN ☐ ☐
- LEHEN GIZAKI HAIEK ORAINDIK HAN BIZI DIRA ☐ ☐





IZAKI NEANDERTHALA (DUELA 140.000 URTE INGURUKO GIZAKIA)

ARGAZKIAN BI EHIZTARI AGERTZEN DIRA.



ZERTAN DIRA BERDINAK? ZERTAN DESBERDINAK?

NEANDERTHALEK HONAKO ANIMALIAK EHIZATZEN ZITUZTEN.

ASMATUKO AL ZENUKE ANIMALIA BAKOITZARI IZENA JARTZEN?

UROA / MAMUTA / ERRINOZERO ILETSUA / BISONTEA



CROMAGNON GIZAKIA (DUELA 40.000 URTE INGURUKO GIZAKIA)

KOBAZULOETAN ETA AIRE ZABALEAN AURKITUTAKO AZTARNEI ESKER DAKIGU GURE ARBASOAK HAN BIZI IZAN ZIRELA:



- HASIERAN HARRIA LANTZEN ZUTEN (SUHARRIAK).
- ONDOREN HEZURRAK LANTZEN HASI ZIREN.
- EHIZTARIAK ETA FRUITU BILTZAILEAK ZIREN.
- KOBAZULOETAN MARRAZKIAK EGITEN ZITUZTEN.



BA AL DAKIZU...

1 - NOLA EGITEN ZUTEN EHIZA?

2 - ZEIN ANIMALIAREN ADARRAK ERABILTZEN ZITUZTEN TRESNAK EGITEKO?

3 - ZER MARGOTZEN ZUTEN KOBAZULOETAKO PARETETAN?



EKAINGO KOBAZULOA (DUELA 17.000-11.000 URTE INGURU)

ANIMALIAK MARGOTZEN ZITUZTEN KOBAZULOKO HORMETAN. MARGOTZEKO ARGIA BEHAR ZUTEN, ETA ARGIA IZATEKO SUA.

BA AL DAKIZU NOLA EGITEN ZUTEN SUA?



MARGOTZEKO IKATZA ETA OKREA (BUZTINEZKO MARGOA) ERABILTZEN ZITUZTEN.

HARTU ZUK ERE BI MARGO ETA MARRAZTU ZALDIA



**SARRIOA****HARTZA****OIHOA**

GIZAKIAREKIN
BATERA OREINAK,
BASAHUNTZAK,
SARRIOAK, UROAK,
BISONTEAK, ZALDIAK,
ELUR OREINAK, ELUR
ERBIA ETA HARTZAK
BIZI ZIREN.

**EZABATU, ZURE
USTEZ, GARAI
HARTAKOAK EZ
DIREN ANIMALIAK**

**KATUA****ARDIA****DINOSAUROA****MAMUTA****BISONTEA****ZALDIA**

EKAINGO KOBAZULOAN BATEZ ERE ZALDIAK DAUDE MARGOTUTA. BA AL DU
ANTZIK ZUK MARGOTU DUZUNAREKIN? ZERGATIK MARGOTUKO ZITUZTEN
ZALDIAK?





OSATU TAULA MARRAZKIA BEGIRATUZ. HITZAK KOKA ITZAZU TAULAN

ETXEETAN **LANTZEN** **ZAINTZEN** **BUZTINA** **EHUNA**

ALTUERA
HANDIAGOKO
LEKUETARA JOAN
ZIREN BIZITZERA.
ADIBIDEZ, ERLO
MAGALEKO
IKUILUTEKO
GAINEAN
EHIZATZEN
ZUTEN.

HOTZ GUTXIAGO
EGITEN ZUENEZ
BIZI BALDINTZAK
ALDATU EGIN
ZIREN.

AURRETIK

- ANIMALIAK EHIZATZEN ZITUZTEN
- FRUITUAK BILTZEN ZITUZTEN
- KOBAZULOETAN BIZI ZIREN
- HARRIA ETA HEZURRA LANTZEN ZITUZTEN

ONDOREN

- ANIMALIAK _____ HASI ZIREN
- LURRA _____ HASI ZIREN
- _____ BIZITZEN HASI ZIREN
- _____ ETA _____ LANTZEN ZUTEN



**USTE ZUTEN TRIKUHARRIEK
ALTXORRA IZATEN ZUTELA
BARRUAN.**

HAREN BILA ARITZEN ZEN JENDEA.

**HORRELA TRIKUHARRI ASKO
HONDATU DA.**

HAUEK DIRA GURE INGURUAN MANTENDU DIREN TRIKUHARRIAK.

ARLUZE
(IZARRAITZ)

ARRIBIRIBILLETA
(IRUKURUTZETA)

ZAINGO BIZKARRA
(ERNIO)

IRUARRIETA
(SAMIÑO)

NOLA IZENA DU BAKOITZAK? JARRI IZENA ARGAZKI BAKOIZARI



SAMIÑON DAGO



ERNION DAGO



IZARRAITZEN DAGO



IRUKURUTZETAN
DAGO

BURDIN AROA



MUNOAUNDI AZKOITIA ETA AZPEITIA ARTEKO MUGAN DAGOEN
BURDIN AROKO HERRI HARRESITUA DA.




IRUDIAN IKUSTEN DUZUNA
HERRIAREN SARRERA DA.

**ZERGATIK
IRUDITZEN ZAIZU
ERAIKI ZUTELA
HARRRESIA?**



**BERTAN BIZI
ZIRENAK HOBETO
EZAGUTZEKO
INDUSKETAK
EGITEN DITUZTE.**



HAUEK DIRA MUNOAUNDIN AURKITUTAKO GAUZA BATZUK.

IDATZ EZAZU BAKOITZAREN ONDOAN ZERTARAKO ERABILTZEN ZIREN.




BURDINEZKO LABANA



ERROTA



FIBULA



PISUA



ZERAMIKA

ZER AURKITZEA
GUSTATUKO LITZAIZUKE
MUNOAUNDIN?

**MARRAZTU
EZAZU**

BURDIN AROA



BEGIRATU ONDOKO IRUDIA ETA SAIA ZAITEZ ZENBAKIAK
LEKU EGOKIAN JARTZEN.



- 1 - SUTONDOA
- 2 - BILTEGIA
- 3 - ERROTA
- 4 - LASTOZKO TEILATUA
- 5 - LOTARAKO LEKUA
- 6 - URA JASOTZEKO LEKUA

EGIA

GEZURRA

IRAKURRI ONDORENGO ESALDIAK ETA JARRI
E (EGIA) EDO **G (GEZURRA)** DIREN:

☐
☐

MUNOAUNDI HARRESIZ INGURATUTAKO HERRIXKA DA

☐
☐

ERROMATARRAK BIZI ZIREN BERTAN

☐
☐

ANIMALIAK ZAINDU ETA LURRA LANTZEN ZUTEN

☐
☐

FAMILIA NAHIKO HANDIAK BIZI ZIREN ETXEBIZITZETAN

☐
☐

TELEBISTA IKUSTEN ZUTEN BERTAN



ERROMATARREN GARAIAN BARDULIARRAK BIZI ZIREN GURE INGURUAN.

IKERLARI BATZUEK VESPERIES HIRIA AZPEITIA INGURUAN ZEGOELA USTE DUTE.

BOROBILEAN SAR ITZAZU ZURE USTEZ ERROMATARREK ERAKUTSI ZIZKIGUTEN GAUZAK:



ARDOA



GALTZADA



SAGARDOA



HARRIZKO ZUBIAK

ERROMATARRAK



ERROMATARRAK ERNION

IGELDON ZEGOEN ZAINDARI BATEK ERNIO INGURUAN SUA IKUSI ZUEN. TALDEKO AGINTARIAK ZELATARI BEREZI BAT BIDALI ZUEN ZER GERTATZEN ZEN IKUSTERA. ABIATU AURRETIK “ERNAI IGO” ESAN ZION.

BIDEAN BI ARTZAIN AURKITU ZITUEN. ARDIAK LAPURTZEN ZIZKINETELA KONTATU ZIOTEN ETA ZELATARIAK LAGUNDUKO ZIELA ERANTZUN.

ERNION SUA AZALDU ZEN ETA BESTE SU BAT AGERTU OMEN ZEN AIAKO HARRIEN INGURUAN. ARTZAINAK ORDUAN LARRITU EGIN ZIREN; EZ ZEKITEN OIARTZUNEN ERROMATARRAK MEAZULOETAN ZEBILTZANIK.

ERROMATARREK JATEKO OKELA FALTA ZUTEN. BI ARDI HARRAPATU, BIZKARREAN HARTU ETA ABIATU EGIN ZIREN.

ARDIEN ATZETIK ZETORREN ARTZAINAK IKUSI ETA ATZETIK JARRAITU ZIEN. GORDETA ZEGOEN BATEK SAREAREKIN HARRAPATU ZUEN ARTZAINA. ISILIK EGOTEN EZ BAZEN GURUTZEAN HILKO ZUTELA ESAN ZIOTEN.

GAZUMEKO HIRU ZELATARIEK GERTATUTAKOA IKUSI ZUTENEAN JENDEA BILDU ETA ERASOTZEA ERABAKI ZUTEN. ERROMATARRAK IHESI ZELATUN ALDERA JAISTEN HASI ZIRENEAN DENAK HIL ZITUZTEN; EDO HORI USTE ZUTEN BEHINTZAT. ERROMATAR BATEK ORDEA IHES EGIN ZUEN.

IGELDOTIK TALDE BAT ERNIOA BIDALTZEA ERABAKI ZUTEN LAGUNTZERA. LEHEN ZELATARI EGONDAKO HURA HASI ZEN HANGO BERRIAK ETA TOKIEN IZENAK EMATEN. NOLA “ERNAI IGO” BEHIN BAINO GEHIAGOTAN ENTZUN ZUEN, GOIKO MUTURRARI ERNIO IZENA JARRI ZION. ERNIO AZPIKO LEPO SAKONARI BERRIZ, NOLA DENAK HANDIK ZELATAN EGOTEN ZIREN, ZELATUN.

ERROMATARRAK ERASORAKO PRESTATZEN ARI ZIRELA NABARITU ZUTEN. EUSKALDUNEK GOITIK ERASOTZEAN KALTE HANDIAK ERAGIN ZIZKIETEN TALDE HAUEI.

BAINA ERROMATAR TALDE BAT USTE EZ ZUTEN LEKUTIK SARTU ZITZAIEN. TALDE HORREK HONDATU EGIN ZUEN EUSKALDUNEN TALDEA. HILDAKOAK ASKO IZAN ZIREN; IHES EGITEA LORTU ZUTENAK OSO GUTXI.

ERROMATARREKIN BATERA BERE SEMEAK HILDA IKUSI ZITUENEAN, AMA BATEK ESAN OMEN ZUEN:

- HAU DA GURE SEMEEN HONDAMENDIA! HONI ESATEN ZAIO NEKEZ HAZI ETA ERRAZ HIL!

ORDUTIK AURRERA DEITZEN OMEN DA ERNIO AZPIKO HERRIA ERREZIL.

MARRAZTU EZAZU BEHEKO LAUKIAN ERNIOKO IPUINEAN
GERTATU ZENA:

BEGIRATU MAPAN DAUDEN MARRAZKIAK ETA LOTUEZAZU ZENBAKI BAKOITZA DAGOKION LETRAREKIN.

- A) MUNOAUNDI
 - B) ERNIOKO KONDAIRA
 - C) SUTONDOA
 - D) KOBAZULOETAKO PINTURAK
 - E) FOSILAK
 - F) FLISCHA
 - G) TRIKUHARRIA
 - H) ARRAINAK
-
- 7) EKAIN
 - 1) LEHENDABIZIKO GIZAKIAK
 - 4) BURDIN AROKO HERRIXKAK
 - 6) ERROMATARRAK
 - 8) ZUMIAKO ALGORRI
 - 3) IRUKURUTZETA ETA SAMIÑO
 - 5) UROLA IBAIA
 - 2) IZARRAITZ


G



A



H



A

B

C

D


E

F

G

H



E**F****D****C****B**

ASPALDIKOA DA
GURE HERRIA!
ZER IKASIDUZU?



GURE ARBASOAK
ASPALDITIK BIZI DIRA
HEMEN!
ZER IZAN DUZU
GUSTUKOENA?



2.º
unidade
didaktikoa



Nola sortu ginen?

Gure herriak ere armarrria du.



Lagunduko al diozu
marrazkilariari
beste erdia osatzen?



Hainbat argazki dituzu hemen azpian

Zeintzuk dira herrikoak?


☐

BAI

☐

EZ


☐

BAI

☐

EZ


☐

BAI

☐

EZ


☐

BAI

☐

EZ

Zer dakizu herrian ditugun eraikin hauei buruz?

IRAURGI BAILARA - UROLA IBAIAREN ONDOAN

Gure herria Haitz izeneko lekuaren
AZPITIK zegoen (begiratu mapan).

Horregatik,
A _ P _ _ T _ A
izena erabiltzen zuten lurraldeari deitzeko.



Idatzi Iraurgi bailara inguratzen duten lau mendiren izenak

1 - _____


2 - _____

3 - _____

4 - _____

Gure herriak bi hiri gutun izan zituen: **Iraurgiko Garmendia** eta **Iraurgiko Salvatierra** izenak hartu zituen herriak.

- Herrian bizi nahi zutenei lurrak eman zizkien landu eta etekina ateratzeko.
- Soreasuko monasterioa herriari eman zitzaion bere mendi, iturri eta lurrekin.
- Harresietatik kanpo ezin zuten ogia, ardoa, sagardoa edo janaria saldu.



Nola deitzen da Iraurgi bailara zeharkatzen duen ibaia?

KOLOREZTA ITZAZU MARRAZKIAN EZAGUNAK ZAIKIZUN ELEMENTUAK.



Azpeititik pasatzen ziren Gasteiztik Getariara eta Nafarroatik Bizkaira joaten ziren bideak. Artisautza eta merkataritza indartu ziren; hala ere jende gehiena harresitik kanpo bizi zen.

Astoa edo antzerako animaliak baliatzen zituzten gauzak edo pertsonak eramateko.



Idatzi margotu dituzun elementuen izenak.

Nahiz eta gehienak harresitik kanpo bizi, herrira joan behar zuten gauzak erosi edo saltzera!

1



ALTUNA ETXEA

2

BASOZABAL,
ATE NAGUSIA

3

ENPARANGO
BURDINOLA

4

SINDIKATU
ZAHARRALOIOLATARREN
ETXEA

8



**Nolakoa zen
gure herria?**

3

5



7

6

1

4

2



5



ENPARAN
DORRETXEA

6



UDALETXEKO
ARMARRIA

7




KORREGIDOREAREN
ETXEA

8



LOIOLATARREN
ETXEA



Herria lapurreta eta erasoetatik babesteko harresiz inguratu zuten.

Harresiak lau ate zituen: Kalegoen, Barrenportal, Enparan eta Parrokiako sarrerak.

Ate batzuen ondoan dorretxoak zeuden, herria zaindu eta babesteko.

Hasiera batean herriak hiru kale zituen: Erdikalea, Enparan kalea eta Elizkalea.

Herriko biztanleen artean zati berdinetan banatzen zen herria. Orubea deitzen zitzaion zati bakoitzari. Bertan eraikitzen zuten etxea; baratza eta animalientzako lekua ere izaten zuten.

Inguruko basoetan egur asko izaten zen. Gaztelako erregeak baimena eman zien inguruko basoetatik egurra hartu eta etxeak eraitzeko.

Etxe gehienak egurrezkoak izaten ziren. Baina herrian sute bat zegoen bakoitzean ia herri guztiko etxeak erretzen ziren. Pixkanaka harrizko etxeak eraikitzen hasi ziren.

Harresien kanpoaldean etxeak eraikitzen hasi ziren eta ondorioz errebalak sortu ziren.

Biztanleak ugaritu ahala herria txiki geratu zen. Pixkanaka harresi zatiak botatzen hasi ziren.

Horrela etxe berriak egiteko leku gehiago zuten.

Harresietatik kanpo zegoen Madalenako ermita. Behartsuen eta gaixotasun kutsakorrak zituztenen ospitalea zen.

Irakurri testua arretaz eta erantzun galderak.

1 - Zergatik egiten zituzten harresiak

2 - Zenbat ate zituen harresiak?

3 - Zein dira, zure ustez, herriko kalerik zaharrenak?

4 - Zerez egiten zituzten hasieran etxeak?

5 - Zer zegoen harresietatik kanpo?

ZERGATIK HIRIBILDUA?



Irudiak begiratuta esango al zenuke zergatik eraiki zuten Azpeitian hiribildua?



Ordenatu hitz hauek eta hiribilduaren sorrerari buruz gehiago jakingo duzu.

sortzeko nagusi Azpeitian izan bi arrazoi zituzten hiribildua:

erasoetatik indartzea. jaunen eta merkataritza (azoka) babestea

burdin lantegiek (burdinolek) Baserritarrek saltzen zuten. landutakoa bertan eta

eramaten zuten. herri erositakoa Merkatariek batetik bestera

egiten zioten. min eta lapurretan eman jendeari Jaunek

eta harresia babesteko herria eraiki zuten. Herritarrek

PRIBILEGIOAK



Harresi barruan bizitzen jartzeko erregeak abantailak eman zizkien biztanleei. Esango al zeniguke abantaila haiek oraindik ba ote ditugun? Egin gurutzetxoak dagokion lekuan

IRAURGIKO SALVATIERRA (Lehen)

AZPEITIA (Orain)

Bai
Ez

Agintariak aukeratzea

☐
☐

Erabakiak bertakoen artean hartzea

☐
☐

Azoka eta feriak herrian egitea

☐
☐

Legea betetzen ez zutenean jendea herrian zigortzea

☐
☐


Hiribilduek, dirua lortzeko, merkataritza bide garrantzitsuenak bertatik pasarazten zituzten. Azpeitian Gasteiztik Getariako portura joaten zenak izan zuen eragin handiena.

Jarri itzazu zenbaki egokiak bidearen arabera.

<u>1</u>	Gasteiz
<u>2</u>	Arrasate
<u>3</u>	Bergara
<u> </u>	Azpeitia
<u> </u>	Azkoitia
<u> </u>	Zestoa
<u>7</u>	Getaria

AHAIDE NAGUSIAK



Borroka handiak izan ziren zaldun talde desberdinen artean: oinaztarren eta ganboatarren artean.

Goiko mapara begiratuta esango al zenuke Iraurgi bailarako zaldunak zein taldeakoak ziren?

Egin gurutzea (X) dagokion zutabean.

ZALDUN FAMILIAK	OINAZTARRAK	GANBOATARRAK
ENPARAN		
BALDA (AZKOITIA)		
OINAZ-LOIOLA		

Idatzi ezazu dorretxe bakoitzaren azpian Enparan, Antxieta (Urrestilla) edo Loiola etxea den.





Iraurgiko Salvatierra hiribilduko harresiak lau ate zituen eta barruan hiru kale: gaur egun Erdikalea, Enparan kalea eta Elizkalea izenez ezagutzen dira. Harresia eraiki zutenean barruko lurraldea bizitzera etorritako biztanleen artean banatu zuten. Familia bakoitzari antzerako lur saila eman zitzaion, orubea.

Orube horretan animaliak hazi, baratzeak jarri eta etxebizitza eraikitzen zuten.

Marraztu ezazu zure orubea (baratzea, animaliak eta etxea) marrazkiaren azpiko hutsunean.

Goiko testua irakurri ondoren esango al zenuke Egia edo Gezurra diren ondorengo esaldiak?

Egia Gezurra

☐
☐

Azpeitiko harresiak bost ate zituen.

☐
☐

Hasierako herrian lau kale zeuden (Erdikalea, Elizkalea, Enparan eta Done Jakue kaleak)

☐
☐

Harresi barruko lurraldea denen artean, antzerako lur sailetan banatu zuten.

☐
☐

Orube horietan eraikitzen zituzten etxeak.

HARRESI BARRUAN / HARRESI KANPOAN

Azpeitiko harresi barruko herriak irudian agertzen den antzerako lurraldea hartuko zuen (etxe bakoitza orube bat zen).

Non bizi zara zu?

Harresiaren barruan edo kanpoan egongo zen zure etxea?

Iraurgiko Salvatierra edo Iraurgi bailarako biztanlea izango zinateke?



Hiribildua sortu zenean biztanle batzuk bizilekua aldatu eta hiribildura etorri ziren bizitzera.

Beste batzuek bere lurretan bizitzen jarraitu zuten.

Begiratu ondoko irudiei eta idatzi bakoitzaren azpian **IRAURGIKO SALVATIERRA** edo **IRAURGI BAILARA** dagokion lekuan.



HIRI BARRUKO JAUREGIAK

Lotu gezi bidez irudi bakoitza dagokion laukitxoarekin:



**ALTUNA
ETXEA**



**BIKUÑA
ETXEA**



**BASOZABAL
ETXEA**



**ANTXIETA
ETXEA**

Perez Arregi enparantzatik Enparan kalera Tranpape deitutako pasabidea zuen. Duela zenbait urte bota zuten.

Juan Antxietakoa, Errege Katolikoen musikariak, agindu zuen eraikitzeko. Parrokiaren aurrean dago.

Plaza Txikiaren eta Done Jakue kalearen bitartean dago. Urrestillako Altuna etxe-koen kaleko etxea zen.

Enparan kalean dago eta Urola ibairainoko tarte hartzen du. Ibaiaren aldetik begiratuta arkuak ditu.

LEHEN / ORAIN

Zer dago berdin? Zer aldatu da? Borobildu desberdintasunak.



Azpeitia, XX. mendea




Azpeitia, XXI. mendea

ERROTAK

Loiola eta Enparan etxeek kontratu berezi bat sinatu zuten herriarekin 1319an. Enparan eta Soreasuko erroten erdia herriari ematen zioten biztanle guztiek beren aleak ehotzera bertara bakarrik eramatearen truke.

Gizakientzat eta abereentzat ezinbestekoa zen aleak txikitzea, ondoren irina egin eta jateko. Hasieran, eskuz egiten zen indarra harri txikiak igurtziz alea txikitzeko. Animalien indarra ere erabili zen harriak mugitzeko. Erdi Aroan ibai edo erreketako uraren indarra erabiltzen hasi ziren harriei eragin eta alea ehotzeko.



Ordена itzazu 1etik 5era irina lortzeko pausoak:



Ura errekatik jaso eta putzuan moteldu egiten da, **kanalera eramanez**.



Presaren azpiko irteera estutik ur-jauzia ateratzen da eta presioak **mugimendua** eragiten du **hegalak jotzean**.



Hegalek errudea (etzandako gurpila) mugitzen dute eta ardatzari mugimendua sortuz **errotarria biraka jartzen da**.



Kanalak ura aldapatik behera poliki eramaten du errotaren goiko aldera, **ura presa batean jasotzen da**.



Errotarrien artean jarritako **alea ehotu (birrindu)** eta ogia edo taloak egiteko **irina lortzen da**.

AZTER DEZAGUN IKASITAKOA

Markatu esandakoak egia (E) edo gezurra (G) diren.

E

G

☐
☐

Baserriak eta artzaintzak garrantzia handia izan dute.

☐
☐

Harresiak ia herri osoa inguratzen zuen eta egurrezkoa zen.

☐
☐

Harresiak lau ate zituen.

☐
☐

Egungo Plaza Nagusia harresitik kanpo zegoen.

☐
☐

Soreasuko monasterioaren inguruan eraiki zen herria.

☐
☐

Getariatik Donostiarako bidea pasatzen zen herritik.

☐
☐

Patxi eta Inaxi eskolara joaten ziren.

☐
☐

Ahaide Nagusiek borroka ugari sortu zituzten herrian.

☐
☐

Herria harresitu aurretik han ez zen inor bizi.

☐
☐

Herritarrek etxeetan baratza izaten zuten eta animaliak hazten zituzten.

Jakingo al zenuke esaten zein eraikuntza edo leku diren hauek?



Eskerrak: Azpeitiko Ikastola Ikasberri, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai, Iraurgi Ikastetxea, Imanol Elias eta bere sendiari, Aitor Aranguren (Geologia), Antxieta Arkeologia Taldea (Azpeitia), Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitiko Argazkilari Elkarte, Azpeitiko Euskara Patronatua, Ingurugiro Etxea Fundazioa (Azpeitia), Jose Luis Otamendi, Juan Mari Arruabarrena (Munibe Arkeologia Taldea, Azkoitia), Juanra Madariaga, Paulo Iztueta, Sonia San Jose (Aranzadi), ... modu batean edo bestean bidean lagun izan zareten guztiei.

